

NERE LETE EXTEBESTE-REKIN SOLASEAN

(Boisen bizi den errenteriarra)

Joxan Arbelaiz



Globalizatzen ari den mundu honetan eta bizimodu berriaren eraginez, gaurko gazteei bizitza irekiagoa eta, neurri handi batean, molde berritan eraiki beharrekoa gertatzen zaie.

Gurean ere, lanbidearen exigentziaz, ardua akademikoak bultzaturik edota beste mila arrazoi desberdinengatik, beraien ibilbidea Errenteriatik urruti garatu beharrean aurkitzen dira gazte asko.

Inoiz, urte batzuk kanpoan igaro ondoren, berriro ere herrira itzultzen dira. Baina, beste askotan, beraien bizimodua urrutiko lurraldeetan egituratu beharra izaten dute. Urruntasun hori ez da soilik kilometrotan neurgarria. Kultura, hizkuntza eta ohituretan ere islatzen da distantzia hori. Baina, aurrera egingo badute, prest agertuko dira gure gazteak erronka hori bereganatzen.

Guretzat arrotz diren lurralde horietan, hauetako bakoitzak lortzen duen arrakastak pozten gaitu eta, neurri apal batean, gurea bezala bizi dugu.

Horietakoa dugu Nere Lete Etxebeste errenteriarra eta egun Boiseko (Idaho) unibertsitatean irakasle lanetan ari zaiguna. 24 urte zituela, Estatu

Batuetara joan zena eta iadanik 18 urtez bertan bizi dena.

Orereta ikastolan egin zituen Unibertsitate aurreko ikasketak. Bertan ezagutu nuenean ikasle zintzoa eta saiaturia zen, kiroletarako doai bereziak zituen. Urteetan, eskubaloian aritu zitzaigun. Eta ondo aritu ere.

Deustuko unibertsitatean Euskal Filologia lizentziatura lortu zuen, ikasketak lanarekin uztartzen zituen bitartean.

Eresoinkan eta Euskal Telebistarako, bikoizketa lanean eta testuen egokitzearekin aritu ondoren, 24 urtez Estatu Batuetara jo zuen eta azken 18 urteetan bertan bizi da, guziz bizimodu berri bat eraikiz. Benetan urte emankorrak dira Nerek bertan eman dituenak.

Euskara eta gaztelerako irakasle lanetan aritu izan da Nevada-Reno, Iowa eta Boiseko unibertsitateetan, azken honetan diharduela une honetan.

Estatu Batuetara iritsi berritan, Gorka Aulestia irakaslearen laguntzaile izan zen, Nevada-Renoko unibertsitateak argitaratu zuen ingelese-euskara hiztegiaren burutzapenean.

Itzulpengintzan egin duen lana ugaria eta garrantzitsua da. Iowako unibertsitatearen enkarguz Bernardo Atxagaren "Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian" eta "Sugeak txoriari begiratzen dionean" eleberriak ingelesera itzuli zituen. Era berean, Sarrionandiaren "Oroimina" izeneko obra ingelesera itzuli zuen, unibertsitate beraren aginduz.

Baina, Nereren ekimenak ez dira arlo akademikora mugatzen. Boiseko ikastolaren sortzaile, bultzatzaile eta suspertzaile dugu, beste hainbat ekimenen artean. Adibidez, aurtengo Boiseko euskaldunak eta Boiseko unibertsitateak, 2007ko apirilaren 20tik 22ra, Euskal Hizkuntzen Nazioarteko Konferentzian, euskal gatazkaren inguruan antolatutako jardunaldietan, Alec Reid apaiz irlandarraren itzultzaile eta laguntzaile izan zen.



Ama euskalduna duen eta euskal hiztuna den Chris Bieter amerikarrarekin ezkondu zen eta bikoteak hiru seme-alaba ditu: Madalen, Josu eta Andoni. Familia osoa Euskal Herrira maiz etortzen saiatzen dira.

Senarra epailea da Boisen eta bertako alkatearen anaia. Behar bada, Estatu Batuetan den alkate euskaldun bakarra.

Hango bere bizimoduaz hitzegun diezagun Nererengana jo dugu, egungo teknologiaz baliatuz, guk hemendik galdetuz eta berak handik erantzunez.

Noiz joan zinen USA-ra? Zergatik? Zer egin zenuen lehen urtea eta gero?

1988 ko udazkenean etorri nintzen Estatu Batuetara, Donostian Euskal Filologiako ikasketak amaitu ondoren. Bikoizketa eta egokitzapen munduan ari nintzen lanean ikasketak burutzen ari nintzen bitartean. Euskal Telebistan POLI ize-neko Txotxongilo saio batean egiten nuen lan.

Guztiak utzi eta Renoko Unibertsitatera joan nintzen euskara irakastera, Eusko Jaurlaritzaren babesarekin. Bertan euskara irakatsi nuen eta

Gorka Aulestiari, Renoko Euskal Mintegiak argitaratutako hiztegiaren egileari, hiztegiaren azken ikutuak ematen lagundu nion.

Pozik nengoenez, nire egonaldia luzatzea erabaki nuen. Gaztelerako klaseak emateari ekin nion Renoko unibertsitatean, Foreign Languages Departamenduan. Lagun giro aparta aurkitu nuen.

Estatu Batuetan ikusten nituen aukera zabalak zirela eta, ikasketa munduan murgiltzea erabaki nuen. University of Iowa-ra joan nintzen goi mailako ikasketak burutzerara. Itzulpengintzan lortu nuen nire tituloa. Han ikasle nintzen bitartean gaztelerako eta euskarako eskolak irakatsi nituen unibertsitatean. Soldatarekin ikasketak ordaindu nituen. Orain oroipen onak besterik ez ditut gogoan, baina hamaika larritasun ere pasa nituen irakasleentzat prestatu behar nituen aurkezpenak zirela eta.

Zergatik aukeratu zenuen Iowako Unibertsitatea?

Iowako Unibertsitatean literatura erkatuaren sailaren barruan itzulpengintzako goi mailako tituloa (edo terminala) eskeintzen dute, arteetan Doktoradutzaren parekoa dena. Bertara mundu

osoko idazleak etortzen dira udazkenero bere lanak idaztera eta klaseetan parte hartzera. Hau dela eta, itzulpen sailak gure klaseetara gonbidatzen zituen Korea, China, Estonia, Finlandia, Israel eta abarreko idazleak. Oso esperientzia aberasgarria izan zen.

Egia esan, bi unibertsitate ezberdinetara joateko aukera suertatu zitzaidan baina lowan Roz Frank zegoen. Roz bertako irakaslea zen eta euskaraz zekien. Berak nire tesia zuzendu zezakeenez eta irakasle lana eskaini zidatenez hara joatea erabaki nuen.

Bakarrik, eta inolako babesik gabe, nola ikusi zenuen zure burua Erreteriatik kanpo?

Egia esan oso ondo. Lagun ezin hobeak aurkitu nituen bai Renon eta bai lowan. Bi lekuetan Euskal Herriko jendea aurkitu nuen. Honek erakutsi zidan ez nengoela bakarrik. Nire esperientzia ez zela bakarra edo arraroa. Ni bezala Euskal Herriko gazte mordoxka zegoela kanpoan. Beste nazioetako lagun asko egin nituen eta hori niretzat zoragarria izan zen. Amerikar ikaskide eta ikasle gazteak ezagutzeko aukera izan nuen.

Sekula ez nuen inolako arazorik eduki USAko irakaskuntza sistemara ohitzeko eta horrek gauzak asko erreztu zizkidan. Ondo mugitzen nintzen nire ikasleen artean. Maiztasun handiz etortzen ziren Hezkuntza eta Hizkuntz departamenduko arduradunak nola irakasten genuen ikustera (atzerritarrak ginenez) baina inoiz ez nuen arazorik izan. Alderantziz, irakaskuntzan jarrai nezala aholkatu zidaten. USA-n euskara eta gaztelera irakasle izan baino lehen, Erreteriatiko Udal Euskaltegian klaseak ematen aritua nintzen eta, zalantzarik gabe, Erreterian ikasitakoak gaztelera klaseetan asko lagundu zidan.

Erreteria txiki ikusten nuen. "Kolore eta forma" ezberdinetako pertsonen falta nabaritzen nuen han, oporretan etxera joaten nintzenen. Gaur egun hau aldatu dela esan behar dut. Bestalde, zenbait euskal ohiturenganako ikuspegi berria jaso nuen.

Beste ohitura akademikoetara jarria, erraz egokitu al zinen Estatu Batuetako unibertsitate girora? Ez al zenuen arrotz sentitu zure burua mundu berri horretan?

Hasieran, bai Renoko unibertsitatean eta bai lowako unibertsitatean, nazioarteko ikasle guztien artean bat gehiago besterik ez nintzen. Alde horretatik oso egoera arrunta zen nerea.

Bestetik, akademikoki, irakasteko eta nire ikasketak areagotzeko prestatuta ikusi nuen nire burua. Ingelesa tarteko, asko ikasi nuen denbora laburrean. Nik ezagutzen ditudan USAko unibertsitateetan, goi mailako ikasketetan, ikasle taldeak ez

dira handiak izaten eta ikasleak irakasleekin zuzenean aritzen dira lanean. Harremanak oso hurbilekoak dira eta honek asko errazten ditu gauzak. Irakasleek zenbaitetan beren etxera gonbidatzen dituzte ikasleak mahai inguruak direla eta...

Diozunarengatik, argi da, haseratik gustura aurkitu zinela. Baina, zerk bultzatu zintuen Estatu Batuetan bizitzen jarraitzera? Erabaki horrek jauzi garrantzitsua suposatzen baitu.

Bertan sentitu nuen askatasuna. Nire burua dimentsio berritan ikusteko ahalmena: Nere euskaraz, Nere gaztelera eta Nere ingelesez. Gainera, irakaskuntza munduan jarraitzeko aukera. Nolabait ere, errazagoa egiten zitzaidan hemen jarraitzea profesionalki arrakasta eduki nezakeela nekielako.

Euskal Herrira itzuliz gero, zer egin nezakeen galdetzen nion nire buruari. Hemen maitemindu nintzen eta ordutik bertan jarraitzea errazagoa zen. Eta pozik nengoen.

Hemezortzi urte beranduago, Boiseko kaleetan, beste etorkin bat gehiago bezala ikusten al duzu zure burua, Nere?

Nire burua beste emakume euskaldun etorkinekin alderatzen badut ezberdintasun nabarmenak ikusten ditut. Guztiak ingelesa jakin gabe etorri ziren. Nik ordea euskara, gaztelera, frantsesa eta ingelesa nekizkien. Askok, beharrak bultzata etorri ziren. Ni, ordea, abentura egarriz etorri nintzen. Zuzenean unibertsitatean hasi nintzen lanean... Beraz egoerak eta, noski, garaiak ezberdinak ziren. Bestalde, emakume euskaldun hauek Boisera etorri zirenean laguntza handia ematen zioten elkarri, haurrak zaintzen, eritexera joan behar zutenean... Ni, ordea, ez nintzen etorkin talde handi baten parte. Ni bakarrik nengoen, horiek guztiak egin behar nituenean. Batzutan, malda gora egiten zitzaidan. Halere, esan beharra dut, emakume helduagoek beti galdetzen zidatela zer moduz nengoen... Beraz sentitzen nuen nolabaiteko babesia.

Bestetik, ez dut arrazakeriarik nabaritu niganako. Baina, noski, "txuria naiz, ingelesa hitzegiten dut, euskalduna naiz". Eta euskaldunek izen ezin hobea dute inguru honetan. Aurreko euskaldunen belaunaldiei esker gaur, euskaldun garelako esatean, guztien oniritzia jasotzen dugu.

Estatu Batuetan daramatzazun hemezortzi urte horietan bizitza berri bat antolatu duzu guziz. Bertan ezkondu zinen eta hiru seme-alaba dituzu. Nolako da zure bizitza Boisen?

Bizitza lasaia dudala uste dut. Goizetan unibertsitatean joaten naiz irakastera. Euskara eta euskal gaiak irakasten ditut euskaraz, ingelesez eta gaztelera. Gero seme-alabak jasotzen ditut

eskolatik eta kiroldegira joaten gara egunero. Haurrek igeriketa taldean igeri egiten dute eta entrenamenduak dituzte. Gero etxera joaten gara eta etxeko lanak egiten laguntzen diegu haurrei, afaldu eta ohera joaten gara.

Noski, asteartero Euskal Etxera joaten gara, haurrak dantza taldean aritzen baitira. Gau esko-la ematen dut Euskal Museoa ostegunetan.

Sasoa denean, Josuk baseball-eko entrenamenduak ditu, Madalen eta Andonik futbolekoak, saskibaloikoak...

Hemen batetik bestera joaten denbora asko galtzen da. Baina, gure filosofia kotxean ahalik eta denbora gutxien pasatzea denez, gure aktibitate guztiak etxetik hurbil egiten ditugu.

Aste buruetan, eskiatzera joaten gara. Bertan dugu eski estazioa eta 30 minutuko bidea besterik ez dugu behar, mendian gora joateko. Familiek eskia egin dezaten prezio bereziak eskaintzen dituzte eta, noski, hemengo ohitura denez, bigarren eskuko ekipoa erosten dugu haurrentzat; urtero tamaina ezberdina behar baitute.

Lagunarte ona dugu, beste 3 familierekin ibiltzen gara atzera eta aurrera eta oso ondo pasatzen dugu. Gure lagunartean guztiak gara euskaldun: senarra ez bada, emaztea da euskalduna.

Ingurune arrotz horretan, nola moldatzen zarete, etxeko giro euskalduna mantentzeko? Ez zaizuela oso erraza gertatu behar ematen du.

Etxean euskaraz eta ingelesez hitzegiten dugu. Ingelesa gero eta gehiago, haurrak ingelesezko eskolara joaten baitira. Txikiak zirenean ikastolara joaten ziren eta, egia esan, oinarrizko ingelesa zekitelara hasi ziren 6 urterekin eskola amerikanora joaten. Senarrak eta biok bultzatu genuen ikastolaren sorrera. Joxe Mari Lete nire aitaren laguntza eduki genuen eta Errenteriako semea den Inaxio Oliverirena ere bai. Guk azpiegitura landu genuen eta lege aldetik bete beharrekoak betetzen genituela ziurtatu genuen. Lan handia izan zen.

Hortik aurrera, gure lagun artera jo genuen eta guztiok batera betetzen genituen eguneroak. Andereñoak Euskal Herritik ekartzen baditugu ere, hamaika aldiz aritu gara eskolak ematen eta egin behar dena egiten.

Ahal dugun guztietan joaten gara Errenteriara. Normalean udan. Senarrari Euskal Herria asko gustatzen zaio eta pozik ibiltzen da Errenterian. Bere familia, amaren aldetik, euskalduna da, bizkaitarra. Berak 18 urterekin ikasi zuen euskaraz, Oñatibarekin Oñatin. Bere aitak, ikasle

amerikar zirela, eraman zituen Oñatira Boisetik. Senar-emazteak 5 seme-alabekin joan ziren lehen urte hartan.

Nire seme alabak amerikar eta euskaldun dira. Eta bi kulturen artean bizitzea ohikoa zaien neurrian, gaur egun beren bikoiztasuna ondo daramate. Nire alabari, Madalen-i "Guazemank" izugarri gustatzen zaio eta atsua oso ondo imitatzen du! Umorea hirurek dute euskalduna eta, egia esan, horrek Chris-i eta niri izugarri gustatzen zaigu. Hango eta hemengo gara, baina gaur egun mundua ildo horretatik doa.

Estatu Batuetako hirietan euskaldunena den Boise hirian, ba al dago begi bistan, Boiseko euskaldunen lekukotasunik?

Bai. Arrasto ugari aurki daiteke hirian barreiatu. Hiri erdigunean Basque Block izenez ezgutzen den euskal auzoa dago. Bertan, Euskal Etxea, Euskal Museoa, Euskal Merkatua, Euskal Ostatu Zaharra, frontoia eta Gernika taberna daude. Euskal gaiei buruzko mural bat ere bada. Euskal auzoaren sarreran, bi laien eskultura dago eta bertan euskaraz eta ingelesez idatziriko dedikatoria bat. Ann Frank-en omenez eginiko Giza Eskubideen aldeko monumento bat ere bada. Boise. Bertan, pentsalari ezberdinen esaldiak ageri dira. Orixeren "Euskalduna" poematik "Geroak esan beza" olerkia aukeratu genuen eta euskaraz eta ingelesez idatzirik dago.

Boiseko Ikastolaren sortzaile izan zineten zure senarra eta zu. Zerk bultzatuta? Errotzen ari al da zuek sortutako ikastola?

Euskara familia gazteetan sartu nahi genuen, haurren bidez. Gure haurrei, euskara etxetik kanpo erabili daitekeela erakutsi nahi genien. Euskara ez dela aitona-amonen hizkuntza zaharra, alegia. Euskara jolasten ikas zezatela, euskarazko lagun artea izan zezatela, nahi genuen.

Bada zortzi urte ikastola sortu genuela. Zazpi ikaslerekin hasi ginen eta gaur egun 25 bat daude. Andereño-maisuak Euskal-Herritik ekartzen ditugu. Ikasleak euskal familietatik datoz, baina zenbaitzuk ez dute euskal erreferentziarik.

Boiseko State Unibertsitateko irakasle zara? Noiztik? Zer irakatsi duzu eta zer irakasten duzu orain?

Hamar urtez izan naiz unibertsitateko irakasle. Urte askotan gaztelera irakatsi dut eta euskara ere bai. Orain 13 urte euskara irakatsi nuen eta orain, azken bi urteetan, berriz ere, euskara irakasten ari naiz, Eusko Jaurlaritzaren eta Estatu Batuetako Gobernu Federalaren laguntzaz. Euskaraz gain, literatura, historia, kultura etab. irakasten ditugu ingelesez eta gaztelera.

Boisetik aparte, eta euskal komunitatetik kanpo, euskarak ba al du inolako lekukotasunik Estatu Batuetan?

Badu. Apirilean, Madisonen, Wisconsin, egon naiz euskarari buruzko aurkezpen bat egiten, NCOLTCL-ek (National Council of Less Commonly Taught Languages) gonbidapenez. Orain dela hamar urte sortutako erakunde bat da eta Estatu Batuetan gutxiago irakasten diren hizkuntzen irakaspena babestu nahi du. Aurten, lehen aldiz, euskarak lekukotasuna izan du bertan. Eta han, Zimbaweko irakasle batekin hitzegiten ari nintzela, hara non nire harridura, euskaldunen berri bazuela esan zidanenan.

Estatu Batuek bere hizkuntza, ikuspegia, kultura, indar erraldoia etab. esportatzen dute, monstro bat bailitzan; baina, hemen barruan, bai unibertsitate munduan, eta baita zenbait jende arruntaren artean ere, interes izugarria dago beste kulturak eta beste hizkuntzak bizirik iraun dezaten.

Zure azken hitzetan optimismoa ikus badaiteteke ere, eta bukatzeko Nere, uste al duzu, globalizatzen ari den mundu honetan, ingelesa munduko pentsameneren jabe bilakatzen ari den momentuan, zentzurik duela Boisen euskarak bizirik iraun dezan lan egiteak? Zergatik?

Bai handi batekin erantzuten dizut, noski,. Eta horretan ari gara egunero gure jardunean. Boiseran etorri nintzenean Boise State Universityn euskara irakatsi nuen. Lehendik, University of Nevada-Renon eta University of Iowan ere bai. Euskal Museoan euskara klaseak ematen nituen eta ematen ditut orain ere.

Boiseko udal liburutegian udako saioetan euskal liburuak irakurri izan dizkiet Boiseko haurrei. Boiseko Ikastola sortu dugu. Pirritx eta Porrotx behin, eta beste behin Txan Magoa, eka-ri genituen Boiseran.

Boiseko Unibertsitatean Euskal Mintegia sortu dugu Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin eta Estatu Batuetako Gobernu Federalaren Hezkuntza Sailaren laguntzarekin. Euskara euskaraz irakasteaz gain, gazteleraz eta ingelesez Euskal Herriari buruzko klaseak ematen ditugu.

Unibertsitatean, mintegiaren bigarren urteurrena ospatzeko, Euskal Gaiei Buruzko Nazioarteko Konferentzia antolatu dugu apirilean. Bi hitzaldi nagusi aurkeztu ditugu: Ibon Mendibelzua jauna, Bruselan Euskal Herriko ordezkariaren buru denak, Euskal Herriak Europar Batasunean duen lekukotasunaz hitzegin zuen. Alec Reid jaunak Euskal Herriko eta Ipar Irlandako pake prozesuei buruz hitzegin zuen. Neri egokitu zitzaidan Reid jaunaren aurkezpena egin

beharra eta ohore handi bat izan zen. Gure bi gonbidatu hauek Euskal Herria norantz doan eta joan daitekeen azaldu ziguten. Guztira 200 bat entzule hurbildu ziren.

Ostiralean, Boise State University-ren babespean konsortzio bat osatzeko interesa azaldu duten 35 ordezkari bildu ginen. Estatu Batuetako mendebaldeko 12 unibertsitateko ordezkariak batzuk eta gainontzekoak euskal gaietan interesatuta dauden elkarteak edo lagunak ziren.

Larunbatean, euskal gaietan jakitunak diren 7 irakaslek beren ikerlanen aurkezpenak azaldu zituzten. Igandean, Jimmy Jausoro, Boise inguruko euskal musikariari omenaldia egin zitzaion. Asteburuak izugarriko arrakasta eduki zuen bai unibertsitate mailan eta baita euskal komunitate mailan ere.

Beraz, eta ikus daitekeen modura, pena merezi duela sinistuta gaude eta lan horretan jarraituko dugu.

Ilusioa dario Nereri euskararen inguruan egiten ari diren lanari buruz hitzegiterakoan. Urruti egonagatik hemengo sentitzen dugu eta asko poztu gaitu berarekin izandako solasaldi honetan atzeman dizkiogun kemena eta bizipoza.

